**BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN KABLE SARE EGITURATUAREN MANTENTZE ZERBITZUA KONTRATATZEKO ADMINISTRAZIO KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIAREN KARATULA. ESPEDIENTE-ZENBAKIA: 3217**

| | |
|---|---|
| **Erregulazio harmonizatuko kontratua** | ☐BAI ☒EZ |
| **Espedientea izapidetzea** | ☒Ohikoa, ☐Urgentea, ☐ Larrialdia,<br>☒Aurreratua |
| **Mota** | ☒ Irekia<br>☐ Ireki sinplifikatua (SPKLren 159.1 art.)<br>☐ Ireki super sinplifikatua (SPKLren 159.6 art.) |

| **A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA** | |
|---|---|
| **1.- Botere adjudikatzailea:** | Consorcio de Aguas Bilbao Bizkaia/<br>Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa |
| **2.- Kontratazio-organoa:** | ☐ Zuzendaritza Batzordea<br>☐ Presidentea<br>☒ Gerentea |
| **3.- Kontratuaren arduraduna:** | Isabel Luquin Maroto |
| **4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:** | contratacion@consorciodeaguas.eus<br>Administrazio/teknika arloko kontsultak: 944 873 100 |
| **5.- Kontratatzailearen profila:** | www.consorciodeaguas.eus<br>https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/ |

| **B.- KONTRATUAREN XEDEA** |
|---|
| **1.- Kontratuaren xedea**: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren (CABB/BBUP) kable-sare egituratuaren mantentze-zerbitzua<br>**2.- Zer beharri erantzun behar zaien**: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoak (BBUP) kobrezko eta zuntz optikozko azpiegitura batez osatutako kable-sare egituratu bat du bere instalazio eta lantokietan.<br><br>BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOAREN KABLE SARE EGITURATUAREN MANTENTZE ZERBITZUA kontratatzea funtsezkoa da haren funtzionamendu egokia bermatzeko.<br>Aktiboak Kudeatzeko Zuzendariordetzak ez du baliabide propiorik BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOKO KABLE SARE EGITURATUAREN ETA ZUNTZ OPTIKOAREN mantentze-lanak egiteko (hots, plantillan ez du ataza horietarako langile propiorik), eta, horrenbestez, kanpo-kontratazioa egin behar da.<br>**3.- Loteka banatzea**: ☐ Bai ☒ Ez<br>**Loteka ez banatzearen justifikazioa**: Instalazio bakoitzean eman beharreko zerbitzuaren ezaugarriak eta elkarren arteko antzekotasuna kontuan hartuta, ez da komeni multzoak bereizi eta sorta independente gisa kontratatzea. Hala, espediente hau sortetan banatzeak kudeaketa zailduko luke, eta lanak egitea eragoztera ere irits daiteke, sorta bat edo batzuk esleitzen ez badira. |
| **4.- CPV:** 32571000-6 Komunikazio-azpiegitura |
| **5.- Aldaeren edo alternatiben onargarritasuna**:<br>☐ BAI ☒ EZ |
| **6.- Izaera juridikoa**<br>☒ Administratibo ☐ Pribatua |

| C.- KONTRATUAREN PREZIOA | |
|---|---|
| **1.- Lizitazio-aurrekontua**<br>(BEZik gabe) | **HIRUROGEITA BAT MILA LAUREHUN ETA BERROGEITA HEMERETZI EURO ETA HOGEITA HAMAIKA ZENTIMO (61.459,31 €), BEZ GABE** |
| **2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 153.648,27 euro**<br>Loteak: ☐ BAI ☒ EZ | |
| **3.- Prezioa zehazteko sistema**:<br>☐ Honenbesteko prezioa ☒ Prezio unitarioak | |
| **4.- Urteko ordainketak eta aurrekontu-kontsignazioa**:<br><br>Kontratuaren aurrekontuko urteko ordainketak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa: 212.01.169.31.<br><br>- 2026. urtea: 30.729,66 €<br>- 2027. urtea: 30.729,65 € | |
| **5.- Prezioen berrikuspena**:<br>☐ BAI ☒ EZ | |
| **6.- Finantzaketa kanpoko funtsekin**:<br>☐ BAI ☒EZ | |
| **7.- Ordaintzeko modua**: Arrunta, ziurtagiri pertsonal bidez | |
| **8.- Konturako ordainketak**: Ez da aplikagarria | |

| D.- KONTRATUAREN EPEA |
|---|
| **1.- Iraupen osoa: BI (2) URTE** |
| **2.- Epe partzialak**.<br>☐ BAI ☒ EZ |
| **3.- Luzapena**<br>☒ BAI ☐ EZ **HIRU (3) URTE** |
| **4.- Bermealdia**: BI (2) URTE.<br>Sarean gauzatutako aldaketek edo areagotzeek gutxienez urtebeteko bermealdia izan beharko dute, instalazio-egunetik zenbatzen hasita. |
| **5.- Kontratua exekutatzeko tokia**: BBUPen instalazioak |
| **6.- Lanak zatika jaso daitezke** ☐ BAI ☒ EZ. |

| E.- BERMEAK | | |
|---|---|---|
| ☒Behin betiko bermea: % 5 | | Zenbatekoa: Adjudikazioa |
| ☐ Berme osagarria: | Zenbatekoa: | |

| F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA |
|---|
| Urteko negozio-bolumenak, amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokionez, kontratuaren batez besteko urteko ordainketa halako bat izan beharko du gutxienez. (30.729,66 €) |

| G.- GAITASUN TEKNIKOA ETA PROFESIONALA |
|---|
| Kontratuaren xedeari dagokionaren mota edo izaera bereko lanetan izandako esperientzia egiaztatu beharko da; interesdunak azken hiru urteotan egindako lanen zerrenda aurkeztu beharko du horretarako, SPKLren 90. artikuluan jasotako ziurtagirien medioz abalatuta. Exekuzio handieneko urtean, urteko zenbateko metatuak gutxienez 25.000 eurokoa izan beharko du nahitaez.<br><br>☒ Enpresa sortu berrien gaitasun teknikoa:<br><br>Halako kasuetan, gaitasuna egiaztatzeko ez da esperientzia kontuan hartuko. Bai, gainerako eskakizunak. |
| BALIABIDEEN ADSKRIPZIOA<br><br>1. Antzeko zereginetan gutxienez 5 urteko esperientzia duen teknikari espezialista.<br>- Egin beharreko lanerako prestakuntza egokia egiaztatu behar du, baita esperientzia eta ezagutzak ere kable-sare egituratua instalatzeko edo mantentzeko proiektu eta obretan.<br>- Halaber, bezeroari zerbitzua emateko bokazioa izan behar du (azken 5 urteotan). Arlo horietan prestakuntza izan duela egiaztatu beharko du, erreferentziak eta titulu akademikoaren fotokopia aurkezteaz gainera.<br>- Prebentzioa. Ezinbestekoa da laneko arriskuen prebentzioari buruzko oinarrizko prestakuntza izatea eta langileen prebentzio-baliabideetako bat izateko gaituta egotea.<br>- Adjudikaziodunaren ordezkari gisako lanak ere egin ditzake.<br><br>2. Mantentze-lanetako bi laguntzaile tekniko. Lanbide-heziketa izan duten teknikariak, lotutako kable-sistema egituratuak eta kanalizazioak (kanaletak eta hodiak) instalatzen, konfiguratzen, abian jartzen eta mantentzen gutxienez 3 urteko esperientziarekin. Mantentze-lanetako teknikariek egingo dituzte gorabeheren diagnostikoak eta mantentze-lanetako ekintzak. |

| LANBIDE-GAIKUNTZA |
|---|
| Ez da aplikagarria |

| ENPRESA-SAILKAPENA |
|---|
| **ENPRESA-SAILKAPENA** ☐ Bai, fakultatiboa ☒ Ez |

| H.- LIZITATZAILEEK AURKEZTU BEHARREKO AGIRIAK |
|---|
| 1.- 1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena. |
| 2.- 2. gutun-azala: Balio-judizioen mende dauden irizpideei buruzko dokumentazioa. |
| 3.- 3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzeko irizpideei buruzko dokumentazioa. |

| BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA |
|---|
| |

**BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

- **Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia**

- Zerbitzu-ematearen irismena: Egin beharreko zerbitzuen deskribapena, ekipoak ordezteko politikak, bermeen kudeaketa, in situ laguntza, konponketak, etab. Zerbitzu horietan sartzen diren prestazioen xehetasuna.
- Lan-metodologia: Kontratuaren xede diren lanen antolakuntzaren, plangintzaren eta garapen-metodoaren azalpen zehatza, zerbitzuetan aplikatu beharreko metodologia adierazita eta kontratuaren premiei buruzko ezagutza egiaztatuta.
- Bezeroari laguntzeko plana: BBUPi laguntza emateko lanen deskribapena eta kontratuaren garapenaren jarraipena, eskainitako zerbitzuarekiko bezeroaren gogobetetzea bermatzeko.
- Kalitatearen kontrola: Lizitatzaileak eskainitako zerbitzuaren kalitatea bermatzeko abian jarriko lituzkeen mekanismoak eta prozedurak, honako hauek barne: materialaren, tresneriaren eta ibilgailuen ikuskatzeak, aplikatu beharreko kalitate-prozedurak esku-hartzeetan eta gorabeheren kudeaketan, bermearen eta ordezko piezen kudeaketan, txostenak lortzea, etab.
- Zerbitzuaren ezaugarriak: Enpresari zerbitzu bakoitzerako proposatutako zerbitzu-mailak behar bezala betetzeko aukera ematen dioten alderdi espezifikoak azaltzea (erantzun-denborak, larrialdien aurreko erantzuna, etab.).

- **- Zerbitzurako jarritako baliabideak**

- Eskainitako ekipoak: 3. eranskina bete beharko da, 1. eranskinean zehaztutako kontratuko obra-unitateetarako eskainitako fabrikatzailearen marka eta modeloa/erreferentzia adierazita
- Instalazioa egiteko baliabide teknikoak: Zerbitzua emateko eskuragarri dauden baliabide teknikoen zerrenda, elementuen marka eta modeloa, kalibrazio-politikak, aldizkako berrikuspenak eta abar adierazita.
- Zerbitzua gauzatzeko giza baliabideak eta antolaketa: Langileen antolaketaren deskribapena, zerbitzuaren antolaketa-egituraren xehetasunekin eta zehaztapenarekin, eta hor sartuko dira kontratuaren xedearen irismenaren funtzionamendu-organigrama, barne- eta kanpo-koordinazioko antolaketa-prozesuak, zenbatetsitako dedikazioa (urteko lanaldiaren %) eta lankidetza gehigarriak (enpresaren barnekoak edo kanpokoak).

Lizitatzaileek profil profesionalen fitxa bat barne hartu beharko dute euren eskaintzan, lizitatzaileak, adjudikaziodun bihurtuz gero, kontratuari atxikiko dion ekipoari buruzko informazioarekin. Eskaintzan sartu beharreko profil profesionalen fitxak hurrengo taulan aurkeztutako formatuari jarraitu beharko dio zorrozki. Lizitatzaileek gorri argiz ilundutako gelaxken edukia bakarrik bete beharko dute.

Parentesi artean eta letra etzanez dagoen testuak azalpenak edo argibideak dituzte. Lizitatzaileek eskaintzan (B gutun-azala) enpresa lizitatzaileak egiaztatutako curriculum vitaeak ere sartu beharko dituzte, atal honen hasieran azaldutako gutxieneko baldintzak betetzen dituztela justifikatzeko.

| **Profil profesionalen fitxa** | | | |
|---|---|---|---|
| **Erantzukizuna kontratuan (funtzioak)** | **Titulazioa/prestakuntza ekonomikoa** | **Esperientzia-urteak** | **Egiaztagirien erreferentzia** |
| Adjudikazioaren delegatua edo ordezkaria | | | *(Enpresak egiaztatutako curriculum vitaearen erreferentzia)* |

**BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

| | | | |
|---|---|---|---|
| Teknikari espezialista | *(gutxieneko lanbide-heziketa)* | *(gutxienez 5 urte)* | *(Enpresak egiaztatutako curriculum vitaearen erreferentzia)* |
| Mantentze-lanetako laguntzaile teknikoa #1 | *(gutxieneko lanbide-heziketa)* | *(gutxienez 3 urte)* | *(Enpresak egiaztatutako curriculum vitaearen erreferentzia)* |
| Mantentze-lanetako laguntzaile teknikoa #2 | *(gutxieneko lanbide-heziketa)* | *(gutxienez 3 urte)* | *(Enpresak egiaztatutako curriculum vitaearen erreferentzia)* |

Bi dokumentu horietarako, gehienez ere 50 orri onartuko dira (alde batetik), eta lizitatzaileak orrialde gehiago eskaini ahal izango dizkio dokumentuetako bati besteari baino, baldin eta guztira 50 orrialde baino gehiago ez badira. Murrizketa horretatik salbuetsita geratzen da 3. eranskineko betetzeko taula, modu independentean beteko dena muga horren mende egon gabe.

Gehieneko orri kopurua zenbatzeko, aurkibidea 50 orri horien barruan kontabilizatuko da. Ez dira zenbatuko azala eta kontrazala.

Eskaintzak ebaluatzeko, ez dira kontuan hartuko aurreko puntuan adierazitako gehieneko kopurua gainditzen duten dokumentuen orrialdeak. Orrialdeen guztizko zenbaketak 50 orrialdeko muga gainditzen badu, 1. dokumentuaren (Memoria teknikoa eta exekuzio-metodologia) eta 2. dokumentuaren (Zerbitzurako jarritako baliabideak) lehen 25 orrialdeak —bakoitzarenak— bakarrik ebaluatuko dira.

Dokumentuek ezaugarri estilistiko hauek bete behar dituzte:

- DIN-A4 tamaina.
- Letra mota eta letraren gutxieneko tamaina: ARIAL, 11 puntu.
- Gutxieneko lerroartea: bakuna.
- Gutxieneko goiko eta azpiko marjina: 2,5 cm.
- Gutxieneko ezkerreko eta eskuineko marjina: 2 cm.

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

**Proposamen ekonomikoa**, lizitatzaileak edo haren ordezkariak sinatua, nahitaez I. eranskin gisa jasotako ereduari jarraikiz idatzia, eskainitako prezioan zerga guztiak, BEZa izan ezik, barne hartuta.

## AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

Proposamen ekonomikoa honako hauekin osatuko da:

a) Prezioen zerrenda.

Kontratuaren prezioa prezio unitarioen arabera ezartzen da, baina exekutatu beharreko unitate kopurua ez dago zehatz-mehatz zehaztuta. Eskainitako prezioek kontratu-izaera dute, eta exekutatu beharreko partiden neurketak kontratuan zehar adostuko dira, konprometitutako gehieneko aurrekontura iritsi arte.

Eskaintzak ebaluatzeko, lizitatzaileek unitateko prezioak eskaini beharko dituzte 2. eranskinean –Obra-unitateen aurrekontua– adierazitako kontzeptuetarako («Eskainitako prezioa, BEZik gabe» zutabea), eta automatikoki kalkulatu eta beteko dira «Eskainitako zenbateko haztatua, BEZik gabe» zutabea eta «GUZTIZKOA haztatua (BEZik gabe)» gelaxka. Lizitatzaileak eskaintza ekonomikoaren gutun-azalari 2. eranskina erantsi beharko dio, beteta, bai formatu editagarrian (Excel), bai PDF formatuan.

Nolanahi ere, zenbateko haztatu hori izango da eskaintza horien gehieneko zenbatekoa, konparazio-azterketa egiteko, eta automatikoki baztertuko dira kopuru hori gainditzen duten eskaintzak, bai eta gehieneko prezio unitarioak gainditzen dituztenak ere.

| Kodea | Deskribapena | Neurketa-unitatea | Eskainitako prezioa BEZ-IK GABE | Eskainitako zenbateko haztatua BEZ-IK GABE |
|---|---|---|---|---|
| **A** | **Materialaren hornidura eta instalazioa** | | | |
| **A.01** | **Kobrezko kable-sare egituratuaren hornidura eta instalazioa** | | | |
| **A.01.01** | **U/UTP kableen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.01.01.01 | U/UTP Cat 6 kablearen hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.01.01.02 | U/UTP Cat 6A kablearen hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| **A.01.02** | **S/FTP kableen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.01.02.01 | S/FTP Cat 6 kablearen hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.01.02.02 | S/FTP Cat 6A kablearen hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| **A.01.03** | **U/UTP Cat 6 tenkagailuen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.01.03.01 | U/UTP Cat 6 1m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.03.02 | U/UTP Cat 6 2m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.03.03 | U/UTP Cat 6 3m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.03.04 | U/UTP Cat 6 5m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.03.05 | U/UTP Cat 6 15m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.01.04** | **U/UTP Cat 6A tenkagailuen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.01.04.01 | U/UTP Cat 6A 1m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.04.02 | U/UTP Cat 6A 2m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.04.03 | U/UTP Cat 6A 3m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.04.04 | U/UTP Cat 6A 5m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |

AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A.01.04.05 | U/UTP Cat 6A 15m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.01.05** | **S/FTP Cat 6 tenkagailuen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.01.05.01 | S/FTP Cat 6 1m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.05.02 | S/FTP Cat 6 2m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.05.03 | S/FTP Cat 6 3m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.05.04 | S/FTP Cat 6 5m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.05.05 | S/FTP Cat 6 15m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.01.06** | **S/FTP Cat 6A tenkagailuen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.01.06.01 | S/FTP Cat 6A 1m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.06.02 | S/FTP Cat 6A 2m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.06.03 | S/FTP Cat 6A 3m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.06.04 | S/FTP Cat 6A 5m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.06.05 | S/FTP Cat 6A 15m LSZH tenkagailu grisaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.01.07** | **Adabaki-panelen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.01.07.01 | 19''-eko panelaren (24 Cat 6 U/UTP ataka konektoreekin) hornidura eta instalazioa. | **Un.** | | |
| A.01.07.02 | 19''-eko panelaren (24 Cat 6A U/UTP ataka konektoreekin) hornidura eta instalazioa. | **Un.** | | |
| A.01.07.03 | 19''-eko panelaren (24 Cat 6 S/FTP ataka konektoreekin) hornidura eta instalazioa. | **Un.** | | |
| A.01.07.04 | 19''-eko panelaren (24 Cat 6A S/FTP ataka konektoreekin) hornidura eta instalazioa. | **Un.** | | |
| A.01.07.05 | 19''-eko panelaren (48 Cat 6 U/UTP ataka konektoreekin) hornidura eta instalazioa. | **Un.** | | |
| A.01.07.06 | 19''-eko panelaren (48 Cat 6A U/UTP ataka konektoreekin) hornidura eta instalazioa. | **Un.** | | |
| A.01.07.07 | 19''-eko panelaren (48 Cat 6 S/FTP ataka konektoreekin) hornidura eta instalazioa. | **Un.** | | |
| A.01.07.08 | 19''-eko panelaren (48 Cat 6A S/FTP ataka konektoreekin) hornidura eta instalazioa. | **Un.** | | |
| A.01.07.09 | Kable-tiragailu eskuila panelaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.01.07.10 | Datu-panel modular hutsaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.01.08** | **RJ45 konektoreen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.01.08.01 | RJ45 konektore emearen (U/UTP Cat 6) hornidura eta instalazioa (adabaki-panelean edo kaxan) | **Un.** | | |
| A.01.08.02 | RJ45 konektore emearen (U/UTP Cat 6A) hornidura eta instalazioa (adabaki-panelean edo kaxan) | **Un.** | | |
| A.01.08.03 | RJ45 konektore emearen (S/FTP Cat 6) hornidura eta instalazioa (adabaki-panelean edo kaxan) | **Un.** | | |
| A.01.08.04 | RJ45 konektore emearen (S/FTP Cat 6A) hornidura eta instalazioa (adabaki-panelean edo kaxan) | **Un.** | | |
| A.01.08.05 | RJ45 konektore arraren hornidura eta instalazioa (U/UTP Cat 6 kablean) | **Un.** | | |
| A.01.08.06 | RJ45 konektore arraren hornidura eta instalazioa (U/UTP Cat 6A kablean) | **Un.** | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A.01.08.07 | RJ45 konektore arraren hornidura eta instalazioa (S/FTP Cat 6 kablean) | **Un.** | | |
| A.01.08.08 | RJ45 konektore arraren hornidura eta instalazioa (S/FTP Cat 6A kablean) | **Un.** | | |
| **A.01.09** | **Plaka, kaxa eta harguneen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.01.09.01 | Horma gaineko kaxaren hornidura eta instalazioa, 2 zutabe bertikalekin, barne hartuta horma gaineko kaxarako oinarria eta markoa eta 2 elementu bikoitzetarako bastidoreak | **Un.** | | |
| A.01.09.02 | Horma gaineko kaxaren hornidura eta instalazioa, 3 zutabe bertikalekin, barne hartuta horma gaineko kaxarako oinarria eta markoa eta 3 elementu bikoitzetarako bastidoreak | **Un.** | | |
| A.01.09.03 | Horma gaineko kaxaren hornidura eta instalazioa, 4 zutabe bertikalekin, barne hartuta horma gaineko kaxarako oinarria eta markoa eta 4 elementu bikoitzetarako bastidoreak | **Un.** | | |
| A.01.09.04 | Horman sarturiko kaxaren hornidura eta instalazioa, 3 zutabe bertikalekin, barne hartuta landaturiko kaxarako oinarria eta markoa eta 3 elementu bikoitzetarako bastidoreak | **Un.** | | |
| A.01.09.05 | Horman sarturiko kaxaren hornidura eta instalazioa, 4 zutabe bertikalekin, barne hartuta landaturiko kaxarako oinarria eta markoa eta 4 elementu bikoitzetarako bastidoreak | **Un.** | | |
| A.01.09.06 | Lurzoruan sarturiko kaxaren hornidura eta instalazioa, 3 zutabe bertikalekin, barne hartuta lurzoruan sartzeko kaxarako oinarria eta markoa, 3 elementu bikoitzetarako | **Un.** | | |
| A.01.09.07 | Lurzoruan sarturiko kaxaren hornidura eta instalazioa, 4 zutabe bertikalekin, barne hartuta lurzoruan sartzeko kaxarako oinarria eta markoa, 4 elementu bikoitzetarako | **Un.** | | |
| A.01.09.08 | Schuko entxufe-oin bikoitz zuriaren hornidura eta instalazioa (16 A 250 V, segurtasun-gailuarekin eta bornatzearekin) | **Un.** | | |
| A.01.09.09 | Schuko entxufe-oin bikoitz gorriaren hornidura eta instalazioa (16 A 250 V, segurtasun-gailuarekin eta korronte egonkorturako bornatzearekin [UPS]) | **Un.** | | |
| A.01.09.10 | Ahots- eta datu-plaka lauaren hornidura eta instalazioa, RJ45 elementu 1erako hauts-babesarekin | **Un.** | | |
| A.01.09.11 | Ahots- eta datu-plaka lauaren hornidura eta instalazioa, bi RJ45 elementutarako hauts-babesarekin | **Un.** | | |
| **A.02** | **Zuntz optikoaren (ZO) hornidura eta instalazioa** | | | |
| **A.02.01** | **ZOaren hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.02.01.01 | Zuntz optikoaren (INT/EXT 8 ZUNTZ MM OM4 50/125 μm) hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.02.01.02 | Zuntz optikoaren (INT/EXT 12 ZUNTZ MM OM4 50/125 μm) hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.02.01.03 | Zuntz optikoaren (INT/EXT 24 ZUNTZ MM OM4 50/125 μm) hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.02.01.04 | Zuntz optikoaren (INT/EXT 8 ZUNTZ MM OM1 62,5/125 μm) hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.02.01.05 | Zuntz optikoaren (INT/EXT 12 ZUNTZ MM OM1 62,5/125 μm) hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.02.01.06 | Zuntz optikoaren (INT/EXT 24 ZUNTZ MM OM1 62,5/125 μm) hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.02.01.07 | Zuntz optikoaren (INT/EXT 8 ZUNTZ SM OS2 9/125 μm) hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.02.01.08 | Zuntz optikoaren (INT/EXT 12 ZUNTZ SM OS2 9/125 μm) hornidura eta instalazioa | **ml** | | |

## AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A.02.01.09 | Zuntz optikoaren (INT/EXT 24 ZUNTZ SM OS2 9/125 µm) hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| **A.02.02** | **ZOzko tenkagailuen hornidura eta instalazioa OM4** | | | |
| A.02.02.01 | Zuntz optikozko tenkagailu duplexaren (MM OM4 50/125 µm, 2 m-koa, behar den edozein zuntz-konektorerekin –LC, SC, ST, FC etab.–) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.02.02 | Zuntz optikozko tenkagailu duplexaren (MM OM4 50/125 µm, 5 m-koa, behar den edozein zuntz-konektorerekin –LC, SC, ST, FC etab.–) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.02.03 | Zuntz optikozko tenkagailu duplexaren (MM OM4 50/125 µm, 15 m-koa, behar den edozein zuntz-konektorerekin –LC, SC, ST, FC etab.–) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.02.03** | **ZOzko tenkagailuen hornidura eta instalazioa OM1** | | | |
| A.02.03.01 | Zuntz optikozko tenkagailu duplexaren (MM OM1 62,5/125 µm, 2 m-koa, behar den edozein zuntz-konektorerekin –LC, SC, ST, FC etab.–) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.03.02 | Zuntz optikozko tenkagailu duplexaren (MM OM1 62,5/125 µm, 5 m-koa, behar den edozein zuntz-konektorerekin –LC, SC, ST, FC etab.–) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.03.03 | Zuntz optikozko tenkagailu duplexaren (MM OM1 62,5/125 µm, 15 m-koa, behar den edozein zuntz-konektorerekin –LC, SC, ST, FC etab.–) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.02.04** | **Zuntz optikozko tenkagailuen hornidura eta instalazioa OS2** | | | |
| A.02.04.01 | Zuntz optikozko tenkagailu duplexaren (SM OS2 9/125 µm, 2 m-koa, behar den edozein zuntz-konektorerekin –LC, SC, ST, FC etab.–) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.04.02 | Zuntz optikozko tenkagailu duplexaren (SM OS2 9/125 µm, 5 m-koa, behar den edozein zuntz-konektorerekin –LC, SC, ST, FC etab.–) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.04.03 | Zuntz optikozko tenkagailu duplexaren (SM OS2 9/125 µm, 15 m-koa, behar den edozein zuntz-konektorerekin –LC, SC, ST, FC etab.–) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.02.05** | **Egokigailuen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.02.05.01 | Edozein konektore ar edo emetarako (LC, SC, ST, FC eta abar) MM duplex egokigailuaren (konexioak egiteko) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.05.02 | Edozein konektore ar edo emetarako (LC, SC, ST, FC eta abar) SM duplex egokigailuaren (konexioak egiteko) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.02.06** | **Banaketa-panelen, hormako lotune-kaxen eta lotune-kaxa estankoen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.02.06.01 | 12 zuntzeko (MM edo SM) zuntz optikozko lotune-kaxa estankoaren (barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.02 | 24 zuntzeko (MM edo SM) zuntz optikozko lotune-kaxa estankoaren (barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |

# AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A.02.06.03 | 48 zuntzeko (MM edo SM) zuntz optikozko lotune-kaxa estankoaren (barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.04 | 96 zuntzeko (MM edo SM) zuntz optikozko lotune-kaxa estankoaren (barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.05 | 12 zuntzeko (MM edo SM) zuntz optikozko hormako lotune-kaxaren (barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.06 | 24 zuntzeko (MM edo SM) zuntz optikozko hormako lotune-kaxaren (barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.07 | 48 zuntzeko (MM edo SM) zuntz optikozko hormako lotune-kaxaren (barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.08 | 12 zuntzetarako (MM edo SM) zuntz optikozko 19"-eko banaketa-panelaren (behar den zuntz-konektorearekin [LC, SC, ST, FC eta abar] barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.09 | 24 zuntzetarako (MM edo SM) zuntz optikozko 19"-eko banaketa-panelaren (behar den zuntz-konektorearekin [LC, SC, ST, FC eta abar] barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.10 | 48 zuntzetarako (MM edo SM) zuntz optikozko 19"-eko banaketa-panelaren (behar den zuntz-konektorearekin [LC, SC, ST, FC eta abar] barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.11 | 8 zuntz optikotarako hormako banagailuaren (MM edo SM, behar den zuntz-konektorearekin [LC, SC, ST, FC eta abar], barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.12 | 12 zuntz optikotarako hormako banagailuaren (MM edo SM, behar den zuntz-konektorearekin [LC, SC, ST, FC eta abar], barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.13 | 24 zuntz optikotarako hormako banagailuaren (MM edo SM, behar den zuntz-konektorearekin [LC, SC, ST, FC eta abar], barne harturik lotune-erretiluak eta punta-babesa) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.06.14 | Rack 2U zuntzezko kable-antolatzailearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.02.07** | **Konektoreak eta *pigtail*en hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.02.07.01 | *Pigtail*aren (behar den 1 metroko MM OM4 50/125 µm zuntz-konektorearekin [LC, SC, ST, FC eta abar]) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.07.02 | *Pigtail*aren (behar den 1 metroko MM OM1 62,5/125 µm zuntz-konektorearekin [LC, SC, ST, FC eta abar]) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.02.07.03 | *Pigtail*aren (behar den 1 metroko SM OS2 9/125 µm zuntz-konektorearekin [LC, SC, ST, FC eta abar]) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.02.08** | **ZO fusioak egitea** | | | |
| A.02.08.01 | Zuntz optikoaren fusio 1 egitea, barne harturik puntak prestatzea eta lotune-babesak | **Un.** | | |
| A.02.08.02 | Zuntz optikoaren 8 fusio egitea, barne harturik puntak prestatzea eta lotune-babesak | **Un.** | | |
| A.02.08.03 | Zuntz optikoaren 12 fusio egitea, barne harturik puntak prestatzea eta lotune-babesak | **Un.** | | |
| A.02.08.04 | Zuntz optikoaren 24 fusio egitea, barne harturik puntak prestatzea eta lotune-babesak | **Un.** | | |

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| **A.02.09** | **OTDR neurketak egitea** | | | |
| A.02.09.01 | Zuntz batean bi norabideko neurketa erreflektometrikoak egitea | **Un.** | | |
| A.02.09.02 | 8 zuntzetan bi norabideko neurketa erreflektometrikoak egitea | **Un.** | | |

## AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A.02.09.03 | 12 zuntzetan bi norabideko neurketa erreflektometrikoak egitea | **Un.** | | |
| A.02.09.04 | 24 zuntzetan bi norabideko neurketa erreflektometrikoak egitea | **Un.** | | |
| **A.03** | ***Rack* eta armairuen hornidura eta instalazioa** | | | |
| **A.03.01** | ***Rack*en hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.03.01.01 | 450 mm-ko atzealdeko 6U hormako *rack*aren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.03.01.02 | 600 mm-ko atzealdeko 18U hormako *rack*aren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.03.01.03 | 800x600 mm-ko lurzoruko 42U *rack*aren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.03.01.04 | 800x800 mm-ko lurzoruko hormako 24U *rack*aren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.03.01.05 | Aire zabaleko armairuaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.03.02** | ***Rack*-osagarrien hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.03.02.01 | 19"-eko *rack*erako Schuko hargune anitzeko entxufearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.03.02.02 | *Rack* torlojuen (50 ale) poltsaren hornidura | **Un.** | | |
| A.03.02.03 | 19"-eko *rack*erako haizagailuaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.03.02.04 | 19"-eko *rack*erako erretiluaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.03.02.05 | 19"-eko *rack*erako erretilu teleskopikoaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.04** | **Beste elementu batzuk** | | | |
| **A.04.01** | **AV kableak eta kargagailuen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.04.01.01 | 3 metroko HDMI kablearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.04.01.02 | 5 metroko HDMI kablearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.04.01.03 | 10 metroko HDMI kablearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.04.01.04 | 5 metroko Displayport kablearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.04.01.05 | 10 metroko Displayport kablearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.04.01.06 | 10 metroko USB kablearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.04.01.07 | 5 metroko USB kablearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.04.01.08 | A motako USB autoko kargagailuaren hornidura | **Un.** | | |
| A.04.01.09 | C motako USB autoko kargagailuaren hornidura | **Un.** | | |
| A.04.01.10 | A motako USB 230 V-ko kargagailuaren hornidura | **Un.** | | |
| A.04.01.11 | C motako USB 230 V-ko kargagailu azkarraren hornidura | **Un.** | | |
| A.04.01.12 | C motako-C motako USB (1,5 metro) kablearen hornidura | **Un.** | | |
| A.04.01.13 | C motako-A motako USB (1,5 metro) kablearen hornidura | **Un.** | | |
| **A.04.02** | **Aurikularren hornidura** | | | |
| A.04.02.01 | Mikrofonoa eta *minijack* konexioa dituzten aurikularren hornidura, deiak hartzeko sakagailua duen telefonorako | **Un.** | | |
| A.04.02.02 | Mikrofonoa eta USB konexioa (C motakoa) dituzten aurikularren hornidura, deiak hartzeko sakagailua duen telefonorako | **Un.** | | |
| **A.04.03** | **Monitorerako osagarrien hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.04.03.01 | Monitorerako beso bikoitzeko euskarriaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.04.04** | **Euskarri-bihurgailuen hornidura eta instalazioa** | | | |

## AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| A.04.04.01 | Modu bakarreko/modu anitzeko zuntzerako 10/100/1000Base-T RJ45 a 1000Base-X euskarri-bihurgailuaren hornidura eta instalazioa, behar den zuntz-konektorearekin (LC, SC, ST, FC eta abar). Stand alone formatua | **Un.** | | |
| A.04.04.02 | Modu bakarreko/modu anitzeko zuntzerako 10/100/1000Base-T RJ45 a 1000Base-X euskarri-bihurgailuaren hornidura eta instalazioa, behar den zuntz-konektorearekin (LC, SC, ST, FC eta abar). DIN erreiaren formatua. | **Un.** | | |
| **A.04.05** | **PoE injektoreen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.04.05.01 | DIN erreiaren formatuko High PoE injektorearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.04.05.02 | DIN erreiaren formatuko High PoE injektorearekin (isolamendu elektrikoarekin) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.04.05.03 | *Stand alone* formatuko PoE+ injektorearen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.05** | **Elementu elektrikoen hornidura eta instalazioa** | | | |
| **A.05.01** | **Elementu elektrikoen hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.05.01.01 | 16A magnetotermikoaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.05.01.02 | A edo F motako diferentzial berrarmagarriaren hornidura eta instalazioa, instalazioak behar dituen ezaugarriekin | **Un.** | | |
| A.05.01.03 | 1+N gaintentsioaren kontrako babesen hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.05.01.04 | Etenik gabeko elikatze-sistemaren (UPS, 1000 W) hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.05.01.05 | Sekzioko kable elektrikoko mahukaren hornidura eta instalazioa 3 x 2,5 mm | **ml** | | |
| A.05.01.06 | Sekzioko kable elektrikoko mahukaren hornidura eta instalazioa 3x6mm | **ml** | | |
| A.05.01.07 | Sekzioko kable elektrikoko mahukaren hornidura eta instalazioa 3x10mm | **ml** | | |
| A.05.01.08 | Lur-konexioko pikaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| A.05.01.09 | Lur-konexioko pletinaren hornidura eta instalazioa | **Un.** | | |
| **A.06** | **Kanalizazioen hornidura eta instalazioa** | | | |
| **A.06.01** | **Moldurak eta kanaleten hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.06.01.01 | 20 x 50 mm-ko molduraren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.06.01.02 | 20 x 75 mm-ko molduraren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.06.01.03 | 40 x 60 mm-ko kanaletaren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.06.01.04 | 60 x 90 mm-ko kanaletaren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.06.01.05 | 60 x 110 mm-ko kanaletaren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.06.01.06 | 20 x 30 mm-ko kanaletaren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.06.01.07 | Kanabera erdi txikiko lurzoruko kanaletaren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.06.01.08 | Kanabera erdi handiko lurzoruko kanaletaren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| **A.06.02** | **Hodiak eta babes-kanalizazioaren hornidura eta instalazioa** | | | |
| A.06.02.01 | 25eko LH hodi malguaren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| A.06.02.02 | 25eko LH hodi zurrunaren hornidura eta instalazioa | **ml** | | |
| **B** | **Zerbitzu teknikoak eta profesionalak** | | | |
| **B.01** | **Teknikarien zerbitzuak** | | | |
| B.01.01 | Teknikari espezialistaren zerbitzua (orduko tarifa) | **€/h** | | |

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTAZIOA**

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| B.01.02 | Laguntzaile teknikoaren zerbitzua (orduko tarifa) | **€/h** | | |
| B.01.03 | Zerbitzua ezartzeko aurretiazko lanak | **Un.** | | |
| B.01.04 | Hileko erreserba teknikoaren zerbitzua | **Un.** | | |
| | | | **Guztizko haztatua (BEZik gabe)** | |

**I.- ESKAINTZAK AURKEZTEKO TOKIA ETA EPEA**

1.- Eskaintzak aurkezteko epea: Kontratatzailearen profilean adierazitakoa
2.- Eskaintzak aurkezteko tokia (AKPAren 13. klausulan ezarritakoa ez beste bat bada soilik):
3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztu behar dira ☒ BAI ☐ EZ
Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:
https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu

**J.- KONTRATAZIO-MAHAIA/ADITUEN BATZORDEA**

☒Kontratazio-mahaia

Lehendakaria:
Ekaitz Mentxaka Corral.

Kideak:
Mikel Magunazelaia Pinaga.
Xabier Orue Moro.
Itziar Zarate Urrutia.
Gerardo Latorre Pedret.
Jose Manuel Pereda Renobales.

Idazkaria:
Gerardo Latorre Pedret.

**K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK**

**1.- Adjudikazio-irizpideak**:

Baloratu beharreko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarri izan behar duten irizpideak honako hauek dira:

**AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEKO IRIZPIDEAK: 50 PUNTOS**

Irizpide honetan 50 puntu emango dira gehienez.

Eskaintza ekonomikoak eskaintza bakoitzaren beherapen-ehunekoarekiko (Bi) proportzioan baloratuko dira, honela:

Bmax ............................................................ 50 puntu
(Bmax + BBB) / 2 ........................................... 48 puntu
BBB ............................................................... 47 puntu
0,8 x BBB....................................................... 46 puntu
0,6 x BBB....................................................... 44 puntu
Lizitazio-aurrekontua........................................ 0 puntu

## K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Non:

- Bi: Eskaintzaren beherapen-ehunekoa; lizitazio-aurrekontuaren eta eskaintzaren zenbatekoaren arteko aldea zati lizitazio-aurrekontua eginda ateratzen den emaitza, ehunekotan adierazita.

- Bmax: Gehieneko beherapen-ehunekoa, eskaintzarik ekonomikoenari dagokiona

- BBB: Batez besteko beherapen-ehunekoa, lizitatzaile bakoitzaren beherapen-ehunekoen batezbesteko aritmetikoaren emaitza.

Onartutako gainerako eskaintzen puntuazioa aurretik zehaztutako puntu-banaketa linealki interpolatuta aterako da.
Hori horrela, Bi beherapen bakoitzari esleitutako Pi puntuazioa honako hau da:

Baldin eta $0 < Bi <= 0,6 \times BBB$

$$Pi = \frac{Bi}{0,6 \times BBB} \times 44$$

Baldin eta $0,6 \times BBB < Bi <= 0,8 \times BBB$

$$Pi = 44 + \frac{(Bi - 0,6 \times BBB)}{0,2 \times BBB} \times 2$$

Baldin eta $0,8 \times BBB < Bi <= BBB$

$$Pi = 46 + \frac{(Bi - 0,8 \times BBB)}{0,2 \times BBB}$$

Baldin eta $BBB < Bi <= (BBB + Bmax) / 2$

$$Pi = 47 + \frac{(Bi - BBB)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

Baldin eta $(BBB + Bmax) / 2 < Bi <= Bmax$

$$Pi = 48 + \frac{(2 \times Bi - BBB - Bmax)}{(Bmax - BBB)} \times 2$$

**<u>BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK: 50 PUNTOS</u>**

**1.- Exekuzioaren memoria teknikoa eta metodologia - 25 puntu**

Alderdi hauek baloratuko dira:

- Eskainitako zerbitzu bakoitzean barne hartutako irismena eta atazak, prestasuna, estaldurak eta bestelakoak barne.

- Kontratuaren premiei buruzko ezagutza-maila egiaztatzea

| K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK |
|---|
| - Lan-metodologia: Kontuan hartuko da mota horretako lanei eta metodologia horretatik erauzitako sistemari buruzko ezagutza-maila.<br><br>- Bezeroari laguntzeko plana: CABB/BBUPi arreta emateko proposamena egokia izatea, bezeroak eskainitako zerbitzuarekin lotutako gogobetetasuna bermatuko duten laguntza-atazen deskribapenaren xehetasuna baloratuta.<br><br>- Kalitatearen kontrola: Hornitu beharreko zerbitzuen kalitatea kontrolatzeko proposatutako metodologia eta antolamendua baloratuko dira, bereziki, gorabeherak kudeatzeko eta konpontzeko deskribatutako kalitate-kontroleko prozedurak.<br><br>- Zerbitzu-mailak Zerbitzua emateko proposatutako zerbitzu-mailak betetzeko gaitasunaren arabera baloratuko dira deskribapena eta metodologia.<br><br>**2.-Zerbitzurako jarritako baliabideak - 25 puntu**<br><br>Alderdi hauek baloratuko dira:<br><br>- Eskainitako ekipoak: Eskainitako ekipamenduaren ezaugarri teknikoak eta funtzionalak baloratzeko, hau hartuko da kontuan: Preskripzio Tekniko Partikularren Agiriaren 1. eranskinean eskatutako eta 3. eranskinean erantzundako zehaztapenak zenbat eta gehiago bete (behin funtsezko eskakizuna gaindituta betiere), orduan eta puntuazio handiagoa emango da. Betetze-taula<br><br>- Zerbitzua emateko baliabide teknikoak: Egindako lanak instalatzeko eta ziurtatzeko kontratuaren eskura ipinitako baliabideen eskuragarritasuna eta kalitatea baloratu egingo dira.<br><br>- Hornidura eta instalazioa gauzatzeko giza baliabideak eta antolaketa: Lizitatzailearen eta hark zerbitzuak emateko dituen langileen barne-funtzionamendua eta -antolamendua baloratuko dira; zehazki, hauek baloratuko dira:<br><br>• Agiri teknikoan aurreikusitako lanen irismenarekin koherentea izatea.<br>• Lan-zamari eta proposatutako plangintzari egokitzea. |
| **2.- Berdinketa hausteko irizpideak**:<br><br>Eskaintza baten baino gehiagoren artean berdinketa jazoz gero, behean adierazitako irizpide sozialak aplikatuko dira berdinketa ebazteko, adierazitako hurrenkeran, eskaintzak aurkezteko epea amaitzean lizitatzaileak duen egoera kontuan izanik:<br>a) Enpresetako plantilletatik desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran dauden langileen ehuneko handiena duena; berdinketa gertatuz gero, plantillan langile desgaitu gehien duena edo plantillan inklusio-neurrien bidez langile gehien duena.<br>b) Plantillan aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duen enpresa.<br>c) Plantillan emakume enplegatuen ehuneko handiena duen enpresa.<br>d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa ebatzi ez bada. |
| **3.- Eskaintza anormalki txikitzat jotzeko irizpideak**:<br>Eskaintza anormalki txikitzat joko da honako egoera hauetako batean badago:<br>- Baldin eta, lizitatzaile bakarra egonik, lizitazioaren oinarrizko aurrekontua baino portzentajezko 25 unitate txikiagoa bada.<br>- Bi lizitatzaile egonik, beste eskaintza baino portzentajezko 20 unitate txikiagoa dena.<br>- Hiru lizitatzaile egonez gero, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Nolanahi ere, zenbatekorik handieneko eskaintza ez da kontuan hartuko batezbestekoa zenbatzeko, baldin eta batezbesteko bakarra baino |

| K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK |
|---|
| portzentajezko 10 unitate handiagoa bada, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Dena den, neurrigabetzat joko da portzentajezko 25 unitatetik gorako beherapena.<br>- Lau lizitatzaile edo gehiago egonez gero, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoa baino portzentajezko 10 unitate txikiagoak direnak. Hala ere, haietako eskaintza batzuk batezbestekoa baino portzentajezko 10 unitate baino handiagoak badira, egoera horretan ez dauden eskaintzekin bakarrik egingo da batezbestekoa, ausarkeria-atalase berria finkatzeko baino ez, eta ezarritako sailkapen-hurrenkeran inolako eraginik izan gabe. Nolanahi ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria zenbatekorik txikieneko hiru eskaintzen gainean kalkulatuko da.<br>Talde bereko enpresek eskaintzak aurkezten badituzte, eskaintzarik txikiena baino ez da kontuan hartuko anormaltasun-presuntzioan dauden eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, alde batera utzita eskaintza bakarrik edo taldetik kanpoko enpresa batekin edo batzuekin batera, aldi baterako elkarturik, aurkeztu duten. |
| **4.- Lizitatzaileari, hautespen-prozesuan jarraitzeko, eskatutako gutxieneko puntuazio-atalasea**:<br>Baztertzeko arrazoia izango da eskaintzaren balorazio teknikoan **25 puntu** gutxienez ez lortzea. |
| ESKAINTZATIK KANPO UZTEA ERAGITEN DUTEN EZ-BETETZE TEKNIKOAK<br><br>- PTPAn edo administrazio-baldintzetan eskatutako baldintzaren bat betetzen ez duen eskaintza bat aurkeztea.<br>- Eskainitako ekipoek eskatutako gutxieneko zehaztapen teknikoak ez betetzea.<br>- Eskainitako ekipoen marka eta eredu zehatzik ez zehaztea, «edo antzekoa» esamoldea edo parekoak erabiliz.<br>- Eskatutako dokumentazio teknikoa ez aurkeztea edo behar bezala ez egiaztatzea. |

| L.- KONTRATUA EXEKUTATZEKO BALDINTZA BEREZIAK |
|---|
| PTPAn zehaztutakoak. |

| M.- ZIGOR ZEHATZAK |
|---|
| PTPAn adierazitako kasuak eta ekintzak. |

| N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA |
|---|
| Arrisku profesionalengatiko erantzukizuneko asegurua dagoelako egiaztagiria. |

| Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA |
|---|
| Ez da aplikagarria. |

| O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA |
|---|
| Ezingo da azpikontratatu zuntz optikoaren eta kable egituratuen mantentze-lanik. |

| P.- SUBROGAZIOA |
|---|
| Ez da aplikagarria |

| Q.- ERREKURTSO BEREZIA |
|---|
| ☒ BAI ☐ EZ |

## BETEBEHARRAK KONTRATUA EXEKUTATU BITARTEAN

- Instalazioari eragin diezaioketen Laneko Arriskuen Prebentzioko Araudi Orokorra, arauak, erregelamenduak, jarraibide teknikoak, jarraibide osagarriak eta abar betetzera mugatzea, eta, bereziki, honako jarraibide hauek beteko dira:
  - Lan-eremua behar bezala seinaleztatu eta isolatuko da, eta sarbide alternatiboak adieraziko dira, istripuak eragozteko.
  - Mantentze-lanen ardura duten langileek, kontrol-armairuan edo bestelako elementu elektrikoetan lan egin aurretik, horietan tentsiorik ez dagoela egiaztatu beharko dute.
  - Kontrol-armairua beti egongo da itxita, eta, behar izanez gero, mantentze-lanetako arduradunak baino ezin izango dira sartu.
- BBUPen Prebentzio Sailaren eskakizunak betetzea.
- Landa-bisiten fasean, une oro prebentzio-baliabide bat izatea.
- BBUPen ingurumen-betekizunak betetzea.
- Lanak zerbitzuaren beharren araberakoak izango dira. Horregatik, edozein unetan eten edo atzeratu beharko dira, BBUPek hala eskatuz gero (modu arbitrarioan). Ez betetzeak kontratua deuseztatzea ekar dezake.
- Adjudikaziodunaren akats edo zabarkeria baten ondoriozko matxura larri batek eta istripu larri batek kontratua deuseztatzea ekar lezake.
- % 5etik gorako zigorrak aplikatuz gero, horrek kontratua deuseztatzea ekar lezake.

### KONTRATISTAREN ORDEZKARIA

Kontratista adjudikaziodunak erabakiak hartzeko eta kontratuzko harremanetan zerikusia duen guztian kontratista ordezkatzeko gaitasuna duen ordezkari bat gaineratu beharko du obrara. Ordezkaria, aldi berean, teknikari espezialista izan daiteke, baldin eta erabakiak hartzeko behar besteko gaitasuna badu.

Ordezkari hori izango da baliozko solaskide bakarra kontratuari buruzko gai guztietarako. Telefono mugikorra izango du, errazago lokalizatzeko, baita posta elektronikoa ere.

Ordezkaria aldi baterako ez badago, kontratistak beste ordezkari bat jarri behar du kontraturako, adierazitako eskakizunak betetzen dituena, hala, BBUPeko kontratuaren arduradunak beti solaskide bakar bat izan dezan lan-jarraibideak adierazteko.